

Lehena.- Onuradunak

Diru-laguntza horien onuradun izango dira Zaldibarren erroldatuta egon eta aipatutako euskara ikastaroak egiten ari direnak euskaltegi pribatu, udal euskaltegi eta barnetegi homologatuetan.

Bigarrena.- xedea

Helduen euskalduntze eta alfabetatzea bultzatzea, Zaldibarko euskaldun kopuruak gora egin dezan.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

2019-2020 ikasturtean zehar euskara ikasten jardun duten ikasleentzako bekak emateko oinarriak 2020ko ekainaren 9ko tokiko gobernu batzarraren 110. zenbakiko erabaki bidez onartu ziren eta 2020ko irailaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (169. zenbakia) argitaratu.

Laugarrena.- Kopurua

Guztira: 8.000,00 €. 335/480.01 aurrekontuko partida

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea: 2020ko urriaren 16ra arte, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.”